

ORTUELLAKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA

REFLEXIÓN ESTRATÉGICA DE ORTUELLA

2004



Bizkaiko Foru
Aldundia

Berrikuntza eta Ekonomi
Sustapen Saila

Diputación Foral
de Bizkaia

Departamento de Innovación
y Promoción Económica



B I L B A O
Metropoli-30

Tontxu Campos,

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta
Ekonomi Sustapeneko diputatua

**Tontxu Campos,**

Diputado de Innovación y Promoción
Económica de la Diputación Foral de Bizkaia.

Lerro hauetatik nire eskerrik zintzoena eman nahi diet Ortuellako Hausnarketa Estrategikoetan parte hartu duten guztiei. Ekimen honen helburua da udalaren hausnarketa estrategikoen bitartez — Ortuellan legez, beste udalerrri batzuetan ere egiten ari dira eta egingo dira— udalerrien garapen ekonomiko handiago eta hobea ahalbidetuko duten oinarrizko jarduerak bultzatzea, beti ere hazteko dituzten aukerak identifikatuz lehenengo eta behin.

Nire ustez, Hausnarketa hauek direla-eta, udalerrriak etorkizunerako erabakiak hartzeko bidea emango dion oinarrizko ezagutza dauka; izan ere, uste dut Hausnarketa Estrategikoa prozesuaren hasiera dela. Ondoren, plangintza estrategikoa jarriko da martxan, eta plangintza horretan udalerriko proiektu nagusiak zehaztuko dira.

Ekimen hau Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Sailak bultzatu du, eta aholkularitzaren eta zuzendaritzaren ardura Bilbao Metropoli-30 Elkarteak izan du.

Hausnarketa Prozesuan udalerriko alor guztietako (ekonomia, kultura, heziketa, kirola edo gizartea) erakunderik garrantzitsuenetako ordezkariak hartu dute parte. Bilbao Metropoli-30 Elkarteak hirien suspertze estrategikoan daukan esperientzia eta lan-metodologia eskaini du.

Gure udalerriei lagundu nahi diegu oraina eta etorkizuna ahal den neurrian hobetzen. Gure helburu nagusietako bat da hori, eta, ondorioz, Hausnarketa Estrategikoek gure helburua lortzen laguntzea espero eta nahi dut. Hemen dituzue ekimena bera eta azterketa zehatza. Orain, guztiok batera, trazatutako bidea garatu behar dugu.

Tontxu Campos,
Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktorea

Quiero expresar desde estas líneas mi más sincera felicitación a todos aquellos que han participado en la elaboración de esta “Reflexión Estratégica” de Ortuella. El objetivo de esta iniciativa es impulsar, a través de las reflexiones estratégicas municipales que, como en el caso de Ortuella, se han llevado y se seguirán llevando a cabo también en otras localidades, actuaciones esenciales que permitan un mayor y mejorado desarrollo económico de los municipios mediante la identificación de sus potencialidades propias de crecimiento.

Considero que, con esta Reflexión, el municipio cuenta, a partir de ahora, con el conocimiento básico que permita adoptar las decisiones de futuro porque, desde mi punto de vista, la Reflexión Estratégica señala el inicio de un proceso que da paso al lanzamiento de la planificación estratégica, en la que se concretarán los principales proyectos del municipio.

Esta iniciativa está impulsada por el Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia y se realiza bajo el asesoramiento y dirección de la Asociación Bilbao Metropoli-30.

Durante este proceso de Reflexión Estratégica en el que han participado representantes de los organismos más representativos del municipio a todos los niveles (económico, cultural, educativo, deportivo o social) la Asociación Bilbao Metropoli-30 ha aportado su experiencia en revitalización estratégica de ciudades y su metodología de trabajo.

Queremos ayudar a nuestros municipios a mejorar en lo posible su presente y su futuro. Es uno de nuestros objetivos fundamentales, por lo que espero y deseo que estas Reflexiones Estratégicas logren cumplir nuestro propósito. Aquí está la iniciativa y su detallado estudio. Ahora nos queda desarrollar, todos unidos, el camino trazado.

Tontxu Campos,
Doctor en Ciencias Económicas y Empresariales

Oskar Martínez Zamora
Ortuellako Alkatea



Oskar Martínez Zamora
Alcalde de Ortuella

Hausnarketa Estrategiko hau egitearekin batera, gure udalerraren etorkizunaren ikuspegia definitzen saiatu gara. Horretarako, auzokideen eta Ortuellako elkarte sarea osatzen duten elkarte, enpresa eta erakundeetako ordezkarien parte-hartze eta ahalegin eskuzabala izan dugu. Modu horretan, sentsibilitate ugari bildu dira eta agiri hau aberastu egin da.

Ortuella teknologia berrietara, baloreen aldaketara eta, oro har, gizarteak planteatzen dizkigun erronka berrietara egokitzea denon erantzukizuna da, eta hori aintzakotzat hartu behar dugu. Hori dela eta, gero eta garrantzitsuagoa da etorkizunari buruzko hausnarketak modu bateratuan egitea.

Abiapuntu legez, Ortuellako egungo egoera hartu dugu eta, azterketa erreal eta objektibo baten bidez, gure udalerraren ahultasunak, sendotasunak eta potentzialtasunak nabarmendu dira, Ortuellako etorkizuna ikusi ahal izateko.

Hausnarketa Estrategiko honek agerian uzten du Ortuellak udal ireki legez ekin diola etorkizunari, enpresen eta egoitzen hazkundera uztartuz, erreferente ekonomiko sendo berria izateko gogoz, jasangarritasun printzipioak errespetatuz, ortuellarren bizi-kalitatea bermatuz.

Agiri hau da bidea; helmuga, berriz, jasotako ekarpenak errealitate bihurtzea. Hori eginez gero, Ortuella eroso, oparo, gizatiar eta, batez ere, etorkizuneko erronkekiko sentikorragoa utziko diegu ondorengo belaunaldiei.

ALKATEA

Con la elaboración de esta Reflexión Estratégica hemos pretendido definir una visión de futuro de nuestro municipio. Para ello hemos contado con la desinteresada participación y el esfuerzo de vecinos y vecinas, representantes de asociaciones, empresas y organismos que conforman el espectro asociativo de Ortuella, de esta manera se han aunado diferentes sensibilidades enriqueciendo este documento.

La adaptación de Ortuella a las nuevas tecnologías, la globalización, la transformación de valores, en definitiva a los nuevos retos que el avance de la sociedad nos plantea es responsabilidad de todos, y esto no lo debemos pasar por alto, por ello se hace cada vez más necesario realizar las reflexiones de futuro de forma conjunta.

Como punto de partida hemos tomado la situación actual de Ortuella y a través de un análisis real y objetivo se han puesto de manifiesto las debilidades, fortalezas y potencialidades que presenta nuestro municipio permitiendo de esta manera visualizar el futuro de Ortuella.

Esta Reflexión Estratégica pone de manifiesto que Ortuella afronta el futuro como un municipio abierto, donde se conjuga el crecimiento empresarial con el residencial, aspirando a convertirse de nuevo en un referente económico asentado, respetando los principios de sostenibilidad, consolidando la calidad de vida de los Ortuellarras.

Este documento es el camino, la meta es hacer realidad las aportaciones recogidas, de manera que podamos dejar a las generaciones venideras un Ortuella más cómodo, próspero, humano y sobre todo, sensible a los retos que se nos presenten en el futuro.

EL ALCALDE

ORTUELLAKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA

REFLEXIÓN ESTRATÉGICA DE ORTUELLA

Toki Garapenerako Plangintza 2004

BURUTU programa

Plan de Desarrollo Local 2004

Programa BURUTU

